

BESTELAKO XEDAPENAK

OSASUN ETA KONTSUMO SAILA

4008

AGINDUA, 2012ko abuztuaren 21ekoa, Osasun eta Kontsumoko sailburuarena. Honen bidez, gaixoen eta haien familien bizi-kalitatea hobetzeko jarduerak EAEn egiten dituzten eta irabazi-asmorik ez duten ekimen sozialeko entitateei laguntzak emateko deialdia egiten da.

Gaixoek eratutako entitateak pertsona fisikoen elkarteak dira, eta, bertan, patologia bera pairatzen duten pertsonak elkartzen dira. Halako entitateek honako helburu hauek dituzte: dena delako gaixotasuna eta berau sendatzeko tratamenduak hobeto ezagutzeko lan egitea, gaixoek elkarri laguntzea, herritarrei gaixotasuna prebenitzeko argibideak ematea, eta herritarren ongizatea eta bizi-kalitatea hobetzea.

Osasun eta Kontsumo Sailak bereziki nabarmentzen du entitate horiek pertsona gaixoen eta haien senideen osasun bio-psiko-sozialaren alde egiten duten ekarpena, hainbat alorretan islatzen dena, hala nola: gaixotasunen errealitate sozial eta afektiboarekiko zuzeneko kontaktua, eta zerbitzu eta autolaguntza programen bidezko zuzeneko asistentzia eta laguntza enpatikoa.

Euskadin kronikotasunaren erronkari aurre egiteko estrategiaren ildotik, eta gaixotasunen bat duten pertsonen osasuna eta ongizatea hobetzeko, Osasun eta Kontsumo Sailak positibotzat eta ezinbestekotzat jotzen du gaixoek eta haien senideek osatutako irabazi-asmorik gabeko entitateen laguntza. Izan ere, entitateok, beren ezaugarriak eta esperientzia direla-eta, elkartzeko, komunikatzeko eta laguntza emateko guneak dira gaixoentzat eurentzat nahiz haien familientzat.

Bestalde, deialdi honetan ere, interesa duten entitateek diru-laguntzen programa honetako izapide guztiak bide telematikoz egiteko aukera eman eta sustatuko da. Horretarako, prozedura bat ezarriko da, betiere, honako arau hauekin bat etorritz: Administrazio Elektronikokoari buruzko otsailaren 21eko 21/2012 Dekretua; Sinadura elektronikoen abenduaren 19ko 59/2003 Legea, Informazioaren Gizarteari Bultzada emateko Neurrien abenduaren 28ko 56/2007 Legeak aldatua; ekainaren 22ko 11/2007 Legea, herritarrek zerbitzu publikoetara sarbide elektronikoa izateari buruzkoa, eta azaroaren 6ko 1671/2009 Errege Dekretua, aurrekoa garatzen duena; apirilaren 29ko 72/2008 Dekretua, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorren eta haren erakunde autonomoen erregistroak sortzeari, antolatzeari eta funtzionatzeari buruzkoa; Informatika eta Telekomunikazioen zuzendariaren 2006ko otsailaren 9ko Ebazpena, E-Administrazioarako Plataforma Teknologikoa -PLATEA- ezartzen duen dokumentua onartzen duena.

Hori dela eta, honako hau

EBAZTEN DUT:

1. artikulua.– Deialdiaren eremua eta helburua.

1.– Agindu honen helburua da laguntzetarako deialdia egitea, zehazki, gaixoek eta haien familiek osatuta dauden eta halako bizi-kalitatea hobetzeko jarduerak EAEn egiten dituzten irabazi-asmorik gabeko ekimen sozialeko entitateentzat.

2.– 2012ko ekitaldian egin diren jarduerak finantzatzeko dira laguntza horiek, hain zuzen, honako helburu hauek betetzeko:

a) Gaixotasunen bat duten pertsonen kolektiboetara eta haien senideei trebetasunak eta baliabideak garatzen laguntzea, euren burua zaintzeko ahalmena maximizatzeko eta autonomia areagotzeko.

b) Gizarte- eta osasun-premien arloan, gaixoei laguntza eta jarraibideak ematea.

c) Gaixoei eta haien familiek dena delako gaixotasunari buruz, haren arrisku-faktoreei buruz eta bizi-ohitura egokienei buruz duten ezagutza eta informazioa sakontzea.

d) Gaixoei osasun aldetik besteekiko dituzten desberdintasunak gutxitzea.

2. artikulua.– Laguntzen zenbatekoa.

Agindu honen helburura bideratuko diren baliabide ekonomikoen zenbatekoa hau da: hirurehun mila (300.000) euro.

3. artikulua.– Beste diru-laguntza edo laguntza batzuekiko bateragarritasuna.

1.– Agindu honetan araututako diru-laguntzen esleipena bateragarria da administrazio berak edo beste batzuek edo erakunde publiko edo pribatuak jardura bererako emandako diru-laguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabide ekonomikoekin. Beste laguntza batzuk jaso badira, horiek ere kontatuta, diru-laguntzen zenbateko osoa ezin izango da izan entitate onuradunak egingo duen jardueraren kostua baino handiagoa.

2.– Lortutako laguntza guztien batuketa jardueraren aurrekontu osoa baino handiagoa baldin bada, diru-laguntza txikiagoa emango da, gehiegizko zenbatekoa kenduta.

4. artikulua.– Laguntzak jasotzen dituzten entitateen betekizun orokorrak.

1.– Deialdi honetako laguntzak eskatzeko, 1/1997 Legegintzako Dekretuan adierazitako betekizunak bete behar dituzte entitate eskatzaileek, eskaerak aurkezteko epea amaitzerako bete ere (Dekretu hori 1997ko azaroaren 11koa da, Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen testu bategina onartzen du, eta otsailaren 18ko 4/2005 Legeak aldatu zuen). Horiez gainera, beste betekizun hauek ere izango dituzte entitateek:

a) Legearen barruan sortuak izan, eta dagozkien erregistroetan behar bezala erregistratuta egon behar dute, diru-laguntzen deialdia baino urtebete lehenagotik, gutxienez.

b) Irabazi asmorik ez izatea, edozein delarik ere izaera juridikoa.

c) Gaixoen eta/edo haien familien bizi-kalitatea hobetzeko asmoz jardun behar dute, eta elkartzeko, hitz egiteko eta laguntzeko guneak eratu.

d) Euskal Autonomia Erkidegoan egin behar dute lan, eta, beraz, han izan behar dute egoitza edo ordezkartzaren bat.

2.– Zehapen administratibo edo penala jaso dutelako diru-laguntzak eta laguntza publikoak jasotzeko aukera galdu duten entitateek ezin izango dute lehiaketan parte hartu, jasotako zigorrak ezartzen duen aldiaren. Era berean, ez dute parte hartzerik izango horretarako ezgaitzen dituen debeku legalen bat duten entitateek, sexu-bazterkeriagatik ezarritako debekuak barne.

3.– Entitateek jaso badituzte ezaugarri bereko beste laguntza edo diru-laguntza batzuk Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren edo haren entitate autonomiadunen eskutik, eta laguntza horien inguruko itzulera- edo zigor-prozesuren bat izapidetzen ari bada, prozesu

horrek amaituta egon behar du, entitate horiei diru-laguntza hau esleitzeko edo esleituta dutenei dagokiena ordaintzeko.

5. artikulua.– Deialditik kanpo uzteko irizpide orokorrak.

Deialdi honen bidez finantzatzeko moduko ekintzetatik kanpo gelditzen dira:

1.– Osakidetzak edo Osasun eta Kontsumo Sailarekin hitzarmena duten zentroek egiten dituztenen pareko jarduerak.

2.– Hiesaren eta droga-mendekotasunen arloko jarduerak, halakoetarako berariazko laguntza-deialdiak badaude eta.

3.– Antzeko jarduerak egiten dituen entitate bat baino gehiago egonez gero, herritar gehiagori eragiten dionak izango du lehentasuna.

6. artikulua.– Diruz lagundu daitezkeen gastuak eta diruz lagundu ezin daitezkeenak.

a) Diruz lagun daitezkeen gastuak kontuan harturik, balioespen batzordeak onartutako aurrekontuaren % 80 izan liteke gehienez ere laguntza bakoitzaren zenbatekoa.

b) Laguntzak jarduerak ordaintzeko dira, eta ez dira erabiliko langile-egitura egonkorra mantentzeko edo entitateen azpiegitura fisikoetan inbertitzeko.

Jarduerarako diru-laguntza erabil daiteke entitateko soldatapeko langileen kostuak ordaintzeko, langileek jarduera horretan egindako lanari dagokion proportzioan, eta zenbateko osoaren % 10 erabili ahal izango da zeharkako kostuak ordaintzeko. Zeharkako kostuak dira entitatearen egiturazko gastuak, azpiegitura fisikoenak barne, beharrezkoak direnak diru-laguntza jaso duen jarduera bat egiteko, zuzenean jarduera jakin horri ez dagozkion arren.

c) Diru-laguntza ezin izango da erabili hauek ordaintzeko: finantza-gastuak, lizentziak, inbertsio-gastuak, berandutze-gainordainak, eta zergak edo Gizarte Segurantza ez ordaintzeagatiko zehapenak.

7. artikulua.– Izapidetze elektronikoa.

1.– Hala nahi dutenek bide elektronikoak erabiliz eskatu, kontsultatu eta egin ditzakete prozedura honetako izapide guztiak.

2.– Entitateak sinadura elektronikoa aitortuko sistemen bidez identifikatuko dira, hau da, entitatea edo pertsona juridikoa egiaztatzen duen txartelaren bidez; entitatea ordezkatzeko pertsona fisikoen kasuan, berriz, e-NANaren bidez (Nortasun Agiri Nazional elektronikoa). Hala dago ezarrita Administrazio Elektronikoaren otsailaren 21eko 21/2012 Dekretuaren 11. artikuluan.

3.– Izapidetze elektronikoa honako arau hauen bidez erregulatuta dago: ekainaren 22ko 11/2007 Legea, herritarrek zerbitzu publikoetara sarbide elektronikoa izateari buruzkoa; lege hori partez garatzen duen azaroaren 6ko 1671/2009 Errege Dekretua; Administrazio Elektronikoari buruzko otsailaren 21eko 21/2012 Dekretua; apirilaren 29ko 72/2008 Dekretua, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Nagusiaren eta haren Erakunde Autonomoen erregistroen sorrera, antolaketa eta funtzionamenduari buruzkoa; Informatika eta Telekomunikazioen zuzendariaren 2006ko otsailaren 9ko Ebazpena, E-Administrazioarako Plataforma Teknologikoa -PLATEA- ezartzen duen dokumentua onartzen duena.

4.– Laguntzak aurrez aurre nahiz elektronikoki izapidetzeko jarraibideak, izapidetze elektronikorako zuzeneko sarbidea eta agindu honetan agertzen diren eranskinak euskadi.net-eko egoitza elektronikoko honetan daude:

http://www.osakidetza.euskadi.net/r85-ckproc03/eu/contenidos/informacion/procedimiento_administrativo/eu_proz/herritarrak_prozedurak_laguntzak.html

8. artikulua.– Eskabideak aurkezteko epea eta modua.

1.– Eskaerak aurkezteko epea hilabetekoa izango da, agindu hau argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

2.– Aurrez aurre edo bitarte elektronikokoak erabiliz aurkez daitezke eskaerak. Eskaera-orriaren eredia eskuragarri dago agindu honen I. eranskinean nahiz euskadi.net-en egoitza elektronikokoan, aurreko artikuluan adierazitako gunean.

3.– Eskaerak aurrez aurre aurkez daitezke Herritarren Arretarako Bulegoetan (Zuzenean), Eusko Jaurlaritzaren Osasun eta Kontsumo Sailaren Lurralde Ordezkaritzetan edo, bestela, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 38.4 artikuluan ezarritako erakundeetan. Datuak behar bezala jasota dituen instantzia normalizatuaren bidez egingo da eskaera.

Halaber, eskaerak elektronikoki aurkezteko aukera dago, euskadi.net-eko egoitza elektronikora sartuta.

4.– Laguntza eskatzen duten entitateek nahi duten hizkuntza ofizialean aurkez ditzakete eskaera eta harekin batera entregatu beharreko agiriak. Entitate eskatzaileak hautatutako hizkuntza erabiliko da, halaber, eskaeratik eratorritako ekintzetan eta prozedura osoan, Euskararen Erabilera Normalizatzeko azaroaren 24ko 10/1982 Oinarrizko Legearen 6.1 artikuluan ezartzen den moduan.

9. artikulua.– Eskaerarekin batera aurkeztu beharreko agiriak.

Diru-laguntzaren eskaerari agiri hauek gehituko zaizkio:

a) Diru-laguntza zer jardueratarako eskatu den, hari buruzko memoria, II. eranskineko eredia erabiliz; egoitza elektronikokoan eskura daiteke, 7. artikuluan adierazitako gunean.

b) Entitate eskatzailearen datu orokorrak, III. eranskinean eta aipatutako egoitza elektronikokoan dagoen instantzia normalizatua erabiliz, salbu eta aurretik aurkeztu badira Osasun eta Kontsumo Sailean.

c) Eskaera sinatzen duen pertsona edo entitatea ez bada entitatearen eraketa-dokumentuan ageri den zuzendaritza-batzordekoa, haren ordezkartza legala egiaztatzen duen agiria. Agiri hori egoitza elektronikoko honetan eskura daiteke:

http://www.euskadi.net/r33-2287/es/contenidos/formulario/representacion_legal/es_form_otorgamiento_representacion.html

d) Hirugarren interesdunaren datuei alta emateko Eusko Jaurlaritzaren inprimakia, edo, hala dagokionean, hirugarrenaren datuak aldatzeko eskaera, salbu eta aurretik Eusko Jaurlaritzan aurkeztu bada. Inprimaki hori euskadi.net-eko egoitzan eskuratu daiteke: http://www.euskadi.net/r33-2288/es/contenidos/autorizacion/alta_terceros/es_7999/alta_terceros.html

Paperezko euskarrian edo euskarri elektronikokoan (PDF formatuan) aurkeztu ahal izango da dokumentazioa.

10. artikulua.– Eskaerako akatsak zuzentzea.

Diru-laguntzarako eskaerak ez baditu eremu guztiak behar bezala beteak edo ez baditu adierazitako dokumentu guztiak atxikiak, entitate eskatzaileari eskatuko zaio akatsa zuzentzeko edo dagozkion dokumentuak entregatzeko hamar egun balioduneko epean, eta adieraziko zaio hala egin ezean atzera botako dela eskaera. Administrazioak halako eskaeren esanbidezko ebazpena eman eta jakinarazi egin behar du, hala xedatuta baitago Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 71.1 eta 42.1 artikuluetan.

11. artikulua.– Betebeharrak/betekizunak egiaztatzea.

1.– Erakunde kudeatzaileak, behar beste aldiz eta eskatzaileen baimenaren beharrik gabe, automatikoki egiaztatuko ditu diru-laguntzen eskatzaileak beren zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzakoak betetzen dituztela, hala xedatzen baita azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuaren 2. paragrafoko 50.3 artikuluan. Dekretu horren bidez onartzen da Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen testuategina.

2.– Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen testuategina onartzen duen azaroaren 11ko 1/2997 Legegintzako Dekretuaren 50.6 artikulua aplikatuz, eskaeraren instantzia normalizatuan, erantzukizunpeko adierazpen baten bidez, betebeharrak hauek egiaztatuko dira:

a) Beste edozein administrazio edo erakunde publiko nahiz pribaturi laguntzak, diru-sarrerak edo baliabideak eskatu zaizkion, helburu berarekin edo antzekoarekin, bai eta halakorik jaso den ere.

b) Eskatzailea ez dagoela diru-laguntzak itzultzeko edo zigorra ezartzeko prozesuren batean, edo halakoren batetik irten berria.

c) Eskatzaileak ez duela laguntzak edo diru-laguntza publikoak eskuratzea eragozten dion administrazio- edo zigor-zehapenik, ez eta horretarako ezgaitzen duen legezko inolako debekurik ere.

d) Eskaeran eta harekin batera doazen agirietan jarritako datuek benetakoak izan behar dute, eta eskatzaileak bete egin behar ditu laguntzen onuradun izateko betekizunak, indarrean dagoen legediak ezartzen dituen horiek, hain zuzen.

Erantzukizunpeko adierazpenarekin batera adierazitako edo aurkeztutako dokumentuetan funtsezko daturen bat zehaztasunik gabe ematen bada, faltsua bada edo ematen ez bada, prozedura eten egingo da horren berri jakiten den unean, dagozkion erantzukizun penal, zibil edo administratiboak alde batera utzi gabe.

Halaber, egoera horren berri ematen duen herri-administrazioaren ebazpenak ezar dezake interesdunak itzuli egin behar duela diru-laguntza -hala balegokio- eta denbora-tarte jakin batez ezin izango duela helburu bereko beste prozedura bat abian jarri; hori guztia, aplikatu beharreko arauetan ezarritakoaren arabera.

12. artikulua.– Datuen babesa.

Agindu honetan aurreikusitako diru-laguntzak eskatzean ematen diren datuak «Laguntzak jasoko dituzten entitateak» fitxategian sartuko dira, 2011ko abenduaren 22ko Aginduan ezartzen den moduan; agindu horren bitartez arautzen dira Osasun eta Kontsumo Sailaren eta Kontsumobide-Kontsumoko Euskal Institutuaren izaera pertsonaleko datuen fitxategiak, Izaera Pertsonaleko

Datuak Babesten dituen 15/1999 Lege Organikoan xedatutakoari jarraikiz. Fitxategi horretako datuak ez zaizkie hirugarren pertsoneri edo erakundeei utziko, eta Eusko Jaurlaritzaren Osasun eta Kontsumo Sailak erakunde eskatzaileen artean laguntzak kudeatzeko bakarrik erabiliko du fitxategia. Nahi duenak erabil ditzake legeak aurreikusten dituen eskubideak (eskaeretan sartzeko, eskaerak zuzentzeko, balioegabetzeko edo kontra egiteko), idatzi bat bidaliz Osasun eta Kontsumo Sailaren Osasun Publikoaren Zuzendaritzara.

13. artikulua.– Eskaerak balioestea.

1.– Aurkeztutako eskaerak balioesteko, Balioespen-batzordea eratuko da. Batzorde horretako kideak hauek izango dira: Osasuneko sailburuordea, lehendakari-lanetan jardungo duena; Osasun Publikoko zuzendaria; Droga Gaietako zuzendaria; Hiesa Prebenitzeko Planaren arduraduna; eta Osasun eta Kontsumo Sailaren lurralde-ordezkaritzetako Osasun Publikoaren zuzendariordeak. Lehendakariak aukeratuko du batzordeko kide horien artean zeinek beteko duen organo horretako idazkaritza.

2.– Balioespen-batzordeak epe barruan eta modu egokian aurkeztutako dokumentazioaren arabera balioetsiko ditu eskaerak.

3.– Balioespen-batzordeak zehaztu egingo du proiektu edo jarduera bakoitzerako zein den diruz lagundu daitekeen gehieneko zenbatekoa eta zenbat puntu ematen zaion, betiere agindu honetan finkaturiko balioespen-irizpideei jarraikiz.

4.– Osasun Publikoko Zuzendaritzak, laguntzak kudeatzen dituen organoa den aldetik, eta/edo Balioespen-batzordeak behar beste informazio eta dokumentazio osagarri eskatu ahal izango diete entitate eskatzaileei, aurkeztutako proiektua edo jarduera hobeto ulertzeko helburuarekin, betiere.

5.– Lehiaketa izango da Agindu honetan araututako diru-laguntzak emateko prozedura. Laguntza izango duten proiektuei zenbateko diru-laguntza dagokien zehazteko, banatze sistema proportzionala erabiliko da. Horri esker, proportzionalki banatuko da 2. artikuluan adierazitako diru-laguntzaren zenbateko osoa, kontuan hartuta bakoitzak balioespen-fasean zer puntuazio ateratu duen 14. artikuluan zehaztutako irizpideak aplikatuta.

14. artikulua.– Eskaerak balioesteko irizpideak.

Hona hemen eskaeren artean lehentasunak ezartzeko erabiliko diren balioespen-irizpideak eta horien haztapena: gehieneko puntuazioa 100 da, eta gutxienekoa, 50 (puntu gutxiago dituzten jarduerak ezin izango dute laguntzarik jaso). Halaber, a), b) eta f) ataletan adierazitako puntuazioaren erdia gutxienez lortzen duten eskaerak bakarrik jaso ahal izango dituzte diru-laguntzak.

a) Diseinuaren kalitate teknikoa, honako alderdi hauen arteko koherentzia bermatuko duena: jorratu asmo diren faktoreak, erdietsi nahi diren helburu espezifikoak, helburuak betetzeko aurreikusitako jarduerak eta helburu horien lorpen-mailari buruzko adierazlearen ebaluazioa. 20 puntu, gehienez.

b) Jarduerak, zuzenean edo zeharka, zenbat hartzaile edo onuradun izango duen. Jardueraren eraginpean zenbat herritar egongo den: 10 puntu, gehienez.

c) Jarduera ekimen sozialeko beste entitate, federazio eta/edo erakunde batzuekin koordinazioan eta lankidetzan gauzatzea, eta sarean lan egitea sustatzea: 5 puntu, gehienez.

d) Jarduerak izaera berritzailea izatea, edo aurreko urteko proiektuen batean hobekuntza berritzaileak sartzeara: 5 puntu, gehienez.

e) Entitatearen ibilbidea eta eskarmentua, eta jarduera edo proiektuaren jarraitutasuna: 20 puntu, gehienez.

f) Jarduerarekin lortu nahi diren helburuen eta hobetu nahi den egoeraren egokitasuna eta garrantzia, 1.2 artikuluan zehaztutako jardunbideak aintzat hartuta: 15 puntu, gehienez.

g) Jardueraren diseinuan eta garapenean arreta bereziz tratatzea kaltetutako pertsonen ezberdintasun sozioekonomikoak edo genero-ezberdintasunak: 10 puntu, gehienez.

h) Jardueraren diseinuan eta garapenean hainbat balio gehigarri sartuta egotea (ekintza boluntarioa, elkarri laguntzea, onuradunek parte hartzea esku-hartzearen diseinuan, kudeaketan eta ebaluazioan): 10 puntu, gehienez.

i) Koordinazio bat ezarrita egotea, eta sinergia bat aurreikusita, jardueraren eta osasun-esparruko eta/edo osasun- eta gizarte-esparruko prestazio, zerbitzu, jarduera eta politika publikoen artean: 5 puntu, gehienez.

15. artikulua.– Lehiaketaren ebazpena.

1.– Osasuneko sailburuordeak ebazpen bat emango du, bere eskumenaz baliatuz eta Balioespenbatzordearen proposamena kontuan hartuta, eta ebazpen hori Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuz jakinaraziko die entitate eskatzaileei diru-laguntza eman edo ukatu egin zaien eta ebazpena aurkaratzeko eta deialdian ezarritako ordainketak egiteko epea noiz hasten den. Edozein modutan, banan-banan ere jakinaraziko zaie ebazpen horren berri.

2.– Ebazpen horren aurka, gora jotzeko errekurtsioa aurkeztu ahal izango zaio Osasun eta Kontsumoko sailburuari. Horretarako, hilabeteko epea izango da, ebazpen hori Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik kontatzen hasita. Hori guztia lehen aipatutako 30/1992 Legearen 114. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoaren arabera, eta urtarrilaren 13ko 4/1999 Legeak eginiko aldaketa aintzat hartuta.

16. artikulua.– Isiltasunez ezestea.

Agindu honen babesean eskainitako laguntzen esleipena ebazteko aurreko artikuluan ezarritako eguna igaro, eta ebazpen zehatzik eman ez bada, eskaerak ukatutzat joko dira (Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legeko 44.1 artikulua). Nolanahi ere, Administrazioak berariaz ebazteko obligazioa izango du beti.

17. artikulua.– Entitate onuradunen betebeharrak.

Indarrean dagoen legedian eta, batez ere, EAEko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen testu bategina onartzen duen 1/1997 Legegintzako Dekretuan adierazten diren betebeharretatik aplikatu beharrekoek gainera, beste betebeharrak hauek ere badituzte agindu honetan aurreikusitako diru-laguntzak jasotzen dituzten entitateek:

a) Emandako diru-laguntza onartzea. EHAAn ebazpena argitaratu eta hurrengo egunetik hasita hamar egun balioduneko epean entitate onuradunek laguntzari berariaz uko egiten ez badiote, laguntza onartuta dagoela ulertuko da.

b) Aldaketaren bat izan bada diru-laguntzak ematerakoan eskatu eta kontuan hartu den betekizunen batean, horren berri idatziz ematea organo kudeatzaileari, ahalik eta lasterren.

c) Helburu bererako beste laguntza, sarrera edo baliabideren bat lortu bada beste edozein administrazio edo erakunde publiko nahiz pribaturen baten aldetik, horren berri idatziz ematea organo kudeatzaileari, ahalik eta lasterren.

d) Laguntza ematen duen entitatearen aurrean frogatzea betekizunak eta baldintzak betetzen direla eta diru-laguntzaren helburu den jarduera gauzatu dela.

e) Osasun eta Kontsumo Sailari laguntzea jarduera horiek egiaztatu, ikuskatu, segimendua egin, ebaluatu eta kontrolatzeko prozeduretan, eta kontrol-saio hauek pasatzea: Eusko Jaurlaritzaren Kontrol Ekonomikoko Bulegoari dagozkionak –Euskal Autonomia Erkidegoaren aurrekontuetatik emandako laguntzak diren heinean–, eta Herri Kontuen Euskal Epaitegiaren berariazko araudian aurreikusitakoak.

f) Jasotako funtsak zertan erabili diren frogatzen duten agiriak gordetzea, agiri elektronikoak barne, egiaztatuak eta kontrolatuak izan daitezkeen bitartean.

g) Egiten diren dokumentuetan eta iragarkietan Osasun eta Kontsumo Sailaren babesa jaso dela aipatzea; aipamen hori Eusko Jaurlaritzaren Erakunde Nortasunaren Eskuliburuan xedatzen den eran egingo da sailak gainbegiratu ondoren: http://www.euskadi.net/id_corporativa/indice_c.htm

h) Agindu honetan aurreikusitako diru-laguntzak emateko eta ordaintzeko, entitate eskatzaileek beteta izan behar dituzte beren zerga-betebeharrak –Ogasun eta Finantzetako sailburuaren 1991ko urriaren 7ko Aginduan xedatutakoak- eta Gizarte Segurantzakoak.

18. artikulua.– Laguntzen ordainketa.

1.– Esleitutako diru-laguntzak honela ordainduko dira:

% 80, laguntza onartzen den momentuan, ebazpena onartu eta argitaratu ostean, eta uko egiteko epea, edo presuntzios onartzekoa, igarota.

Gainerako % 20, diruz lagundutako proiektua bukatu ondoren, eta honako justifikazio-agiri hauek aurkeztu ondoren:

a) Diru-laguntzaren xede den jardueraren deskribapen- eta ebaluazio-memoria, eredu normalizatuaren arabera (agindu honen IV. eranskinean dago, eta 7. artikuluan adierazitako egoitza elektronikoan ere eskura daiteke). Memoria horretan, Osasun eta Kontsumo Sailak emandako diruarekin egindako gastuen ziurtagiri guztiek egon behar dute, eta, halaber, honako hauek adieraziko dira: ziurtagiri-mota, kontzeptua, igorlea, data, zenbatekoa eta jarduerari dagokion ehunekoak. Gastuen frogagiri horiek bat etorri behar dute aurkeztutako aurrekontuko kontzeptu guztiekin eta kontzeptu bakoitzak aurrekontu osoarekiko duen proportzioarekin.

b) Diru-laguntza jaso duen proiektua osorik egin dela ziurtatzen duten faktura originalak edo haien fotokopia konpultsatuak. Hala ere, esleipenaren ebazpenean zehaztu bada laguntza zer kontzeptu ordaintzeko den, gastu horiei dagozkien fakturak baino ez dira aurkeztu behar.

Originalak itzuli egingo dira, bidaltzean hala eskatzen bada.

c) Jarduerarekin zerikusia duten agiri publikoak, hala nola egunkari-zatiak edo proiektuko fondoekin ordainduta egindako, kopiatutako eta zabalduetako ikasmateriala; agiri horiek berak aurkez daitezke edo horietarako esteka elektronikoak eman.

d) Proiekturako funtsekin ordaindutako tailer eta ikastarorik antolatu bada, haietan parte hartu dutenen bertaratze-zerrendak (izen-abizenak eta NAN zenbakia).

Paperezko euskarrian edo euskarri elektronikoan (PDF formatuan) aurkeztu ahal izango da dokumentazioa.

Dokumentazioa aurkezteko azken eguna 2012ko abenduaren 10a da.

2.– Emandako laguntzarekin ordaindutako gastuek diru-laguntza jaso duen jarduera gauzatzean sortutakoak izan behar dute. Behar bezala justifikatutako gastuak hauek dira:

a) Entitate onuradunaren izenean igorritako fakturaren bidez justifikatutakoak. Fakturek, baliozkoak izateko, 2012an eginikoak izan behar dute.

b) Banku-zordunketako ordainketa-agirien bidez justifikatutakoak (finantza-entitateek egiten dituzte, eta faktura bati dagozkion datuak izaten dituzte, zenbakia eta seriea izan ezik).

c) Lan-kontratudun langileei dagozkien gastuetan, soldaten ordainagiriaren bidez justifikatutakoak (ordainagirik eredu ofizialen eta Gizarte Segurantzako kotizazioko aldizkari ofizialen arabera izan behar dute).

d) Balio Erantsiaren gaineko Zergatik salbuetsita dauden noizbehinkako lanetan, enpresariak edo profesionalak ez diren pertsona fisikoek egiten dituztenean, gastua justifikatzeko, entitate onuradunak idatzi bat egingo du eta haren ordezkariak sinatuko du. Idatzi horrek gutxienez datu hauek izan behar ditu: egilearen eta entitate hartzailearen izen-abizenak, identifikazio fiskaleko zenbakiak eta helbideak; eragiketaren deskribapena eta guztizko zenbatekoa; idatziaren jaulkipen-data; «hartu dut» eta pertsona hartzailearen sinadura; pertsona fisikoaren errentaren gaineko zergaren atxikipena.

e) Langile boluntarioak izanez gero, boluntarioen aseguruak diruz laguntzeko moduko gastutzat har daiteke, agindu honetan aurreikusitako diru-laguntza jaso duten eta boluntarioen laguntza izan duten jardueretan. Finantzatu beharreko boluntarioaren aseguruak bi poliza izan behar ditu nahitaez: bata, istripuena, eta bestea, erantzukizun zibilarrena. Azken poliza horretan, ez behar bakoitzeko kapital aseguratu 300.506,05 euro izango da gutxienez, eta aseguruaren urte osoko kuota ordainduko zaie polizako boluntario guztiei. Boluntarioen aseguruari diru-laguntza eman ahal izateko, asegurataleak edo aseguruaren hartzaileak eginiko egiaztagiri bat adierazi behar da justifikazioan. Egiaztagiri horretan, datu hauek agertu behar dute, gutxienez: erakundeak bere boluntarioentzat kontratatutako aseguru-polizen estaldurak, aseguruan sartzen den pertsona-kopurua eta polizaren guztizko zenbatekoa.

3.– Aldez aurretik eginiko gastuak ordaindu daitezke jasotako diru-laguntzarekin, baldin eta gastu horiek diru-laguntza jaso duten jardueretan sartzen diren ekintza eta kontzeptuen kostu errealak badira eta 2012. urtean sortutakoak badira.

19. artikulua.– Justifikazio-akatsak zuzentzea.

